

ENBATA

tradiziozko pertsonaien pausoekin eta
ahotsekin **dantza garaikidea** egiten dugu



URRASKA

ENBATA:
Aldizkari bizi

DANTZA
LABEA

 dantza
gunea

Pujanatarrak



ENBATA URRASKA

ENBATA Urraska ENBATA proiektua aurkezten duen hitzaldi/ emanaldi performatiboa da, gure sorkuntza prozesuak eta helburuak azaldu eta eszenaratzen ditugu. 9 eszena labur eta esketsu autokonklusiboetan oinarritutako emanaldi bat da, hitzaldi baten bidez joria. Lehenik, pertsonaiak aurkezten dira, hala nola inauterietako erregea, beharginak eta hartza, eta gero inauteri garaikide baten egitura posibleak eraikitzen dira. Satiraren bidez immigrazioa eta lan gaixotasuna bezalako gaiak jorratzen dira, egungo paradoxak ikusaraziz.

Eszenan bi dantzari eta musikari bat dago. Espazio eszenikotik irten gabe eta objektu batzuen laguntzarekin, euskal inauteri ezberdinenatik bidaiak bat egiten dugu.



ENBATA URRASKAN LANTZEN DIREN GAIAK

1. Euskara:

Euskal kultura ez da eszenatokietan soilik geratzen! Gure helburua kalean euskaraz hitz egiteko sare eta tertuinguru performatibo bat sortzea da, euskal dantza garaikidea erabiliz. Euskal kulturaren arnasmuneei haize berria ekartzen ahalegintzen gara, aurretik egindako ekarpen guztien oinarrian eraikiz.

2. Genero arrakala eta lan-kargak:

Langileen figuren bidez, genero arrakala eta horrek lan-kargen banaketan sortzen dituen desorekak aztertzen ditugu, kritika eta hausnarketa sustatuz.

3. Etorkinak eta komunitatearen mugak:

Hartzaren figuraren bidez, gure komunitatetik kanpo geratzen diren etorkinen egoera lantzen dugu, gizarte bazterketaren eta integrazioaren gaineko gogoeta bultzatuz.

4. Energia-trantsizioa eta satira:

Energia-trantsizioaren inguruko inauterietako fartsa satirikoak sortzen ditugu, inauterietako errega eta langilearen arteko erlazioaren bitartez gizartearen egiturak aztertzeko.

5. Euskal inauteri garaikideen egitura eta argumentu ezberdinak, Domestikazio fartsak eta moxorrotutako eske errondoak lantzen ditugu.



Fitxa, beharrian tekniko

▶ ESPAZIO ESZENIKOA

Edozein espaziora moldatzen gara, poltrikoko dantza formatua erkaintzen baitugu. Espazio eszenikoaren atzealdean, Enbatak ekartzen duen teloi beltza jarriko da [sua erresistentea da]. Teloia zintzilikatzeko, metal mugikor eta doigarri bat erabiliko da, arkitekturak ez badu teloia zintzilikatzea ahalbidetzen. Telo honen helburua ikusleen arreta fokalizatzea eta argijokoekin antzerki giro bat sortzea da.

Frontoi, harrera gelak edo bestelako espazioetan aurkezteko lan eszenikoa da. Antzoki batean egingo bada ikusleak ahal den einena oholtzatik bertatik ikustea interesgarria litzateke urte dugu.

▶ ARGIZTAPEN EKIPAMENDUA

Argiztapena Enbatak darama:

6 Par LED fokua.

▶ JOINUA EKIPAMENDUA

Joinu ekipoa Enbatak darama.:


Hala ere, zerbait erabiltzekotan 2 PA bozgorailu eta soinu mahaia izango litzateke.

▶ ELEKTRIZITATE BEHARRAK

Elektrizitate tomak: 5 entxufe elektriko.

▶ BESTELAKO MATERIALAK

Mahai bat behar dugu eszenan, musikariarentzat.





Fitxa artistikoa

Iraupena: 45 min

Dantzari eta sortzaileak: Ainhoa Urandizaga, Beñat Urrutia

Musikari eta sortzailea: Manu Gaigne Beobide

Proiektuaren zuzendaritza eta ekoizpena: Beñat Urrutia Pujana

Ekoizpen eta zuzendaritza artistikoa: Rafke Van Houplines

Irudi korporatiboa: Alaiondo Estudio

Argazkiak eta bideoak: Etanowski eta Beñat Gereka

Testuak Beñat Urrutia Pujana

ESTREINALDIA ETA EMANALDIAK

Estreinaldia:

2024, Azaroak 24, Larrabasterrako Auzoetxea, Sopela

Bira:

2024, Azaroak 24, Larrabasterrako Auzoetxea, Sopela

2024, Azaroak 29, Printza, Lekunberri

2025, Otsailak 9, Sugarra, Lizarra

2025 Martxoak 16, Torpedo Gorria, Mungia

2025 Ekainak 15 Ibarako gaztetxea, Ibarra

2025 Uztailak 5, Kaleka Jaialdia, Lekeitio

2025 Irailak 21, Anzterki eguna, Ondarroa

...



Zer da Enbata Aldizkari Bizia

ENBATA, dantza garaikidean eta antzerki fisikoan oinarrituriko aldizkari bizia da.

Boltrikoko dantza/ antzerki fisikoaren emanaldiak egiten ditugu. Dantza garaikideari dagokionez, euskal folkloreko pertsonaien jokamoldeak eta mugimenduak aztertuz dantzako joko eszenikoak ikertzen dituen proiektu eta sarea gara. Aldizkari biziari dagokionez, pertsonaia eta joko horiek erabiliz, egungo gertakizunak antzezteko eta dramatizatzeke aukerak ikertu eta eszenaratzen ditu. Hala ere, ENBATAk ez du oholtzara bakarrik mugatu nahi bere akzioa, horregatik; fanzineak, dantza instalazioak eta dibulgaziozko testuak ere sortzen ditu. Egungo berriak eszenikoki antzezten ditu tabernetan, kaleetan, frontoietan eta espazio alternatiboetan. Pertsonaia eta mugimendu horien bidez euskarazko aldizkari biziaren aukerak esploratu nahi ditu.



ENBATA ALDIZKARI BIZIA

Manifestua

Eta hemen gaude, herri baten izerditik edaten. Euskal Herriko ondare immateriala ez da soilik iragana, ez da oraina; **atzerá egiten dugun bakoitzean, aurrera goaz**, etorkizuna oinez egiten dugu. Tradizioak ez dira gure lokarri, gure oinetakoen lokarriak baizik, salto egitera bultzatzen gaituztenak.

ENBATA ez da airean dantzan dabilen laino bakarti bat, iragan urrunetik gure kostaldeá astintzera datorren ekaitza da. Ekaitz hori zuena ere bada. Gurekin batera, saretu zaitezte, izan zaitezte ENBATAREN parte!

Tradiziozko pertsonaiak ez dira soilik irudimenaren erakusleihoan jarritako txotxongiloak; **haien ahotsak gureak dira**, eta haien pausoak gure dantza garaikidea dira. Ez gara iragana berpizten saiatzen; iragana berak bizi nahi du gure orainaldian. Pertsonaia horien bidez gaur eguna eraikitzen duten berriak bizi eta kontatu nahi ditugu.

ENBATA, gure kultura den bezala bizia eta dinamikoa da. Panorama berri bat zabaltzeko armoz dator, aldizkari bizi bat da. Hemen, euskaraz hitz egin, eztabaidatu, eta gure errealitatean sakontzeko espazio bat eskaintzen dugu. Ez gara iraganaren nostalgian katigatzen; **gaur egungo, bizipenak tradiziozko pertsonaien ahotan** erzenaratzen ditugu. Zabal dezagun sare berria elkarrekin.

ENBATAK ez du bakarrik erzenatokian eragina izan nahi; euskaraz hitz egiteko sare bat eraikitzea da gure helburua, euskal dantza garaikidea eta erzenaratze herrikoiak berrinterpretatuz eta berpiztuz. Gure ikuspegia argia da: oratu eta bukatu diren formak gaur egungo ikuspegi berri batetik berriztatzea, euskal kulturaren potentzial osoa agerian utziz.

Euskara ez da hitza soilik, ezkutuko hizkuntza bat da, orainaldiaren gatazken oihartzunak eta euskararen doinuak nahasten dituená. Inauterien formak eta dantzak oratu, hautri, eta berriro armatu nahi ditugu, Euskaraz aritzeko sare iraultzale bat eratuz.

ENBATA ez da gidari; haizea da, gure egunerokotasuna dantzan jartzen duena, **kaleak eta tabernak dantzaz eta satiraz betez**.

Euskal kulturaren labirintotik atera eta bide berriak sortuko ditugu. Jorge Oteiza ez litzateke hemen izango, eta hala ere, hemen da, gure hitzak hauspotzen. Zuek ere hemen izan zaitezke gurekin aurrera eginez.

Batu zaitez Enbatará!



Lan taldea



Beñat Urrutia Pujana,

Jatabe (1995)

Proiektuaren zuzendaritza eta ekoizpena

Dantzari eta sortzailea



Koreografia eta Interpretazioko gradua egin zuen Dantzerkin (2016-2019), eta Euskal Herriko Unibertsitatean euskal dantzaren inguruko ikastaro oragarria egin zuen (2017). 2019 eta 2022 bitartean. Dantza-en kide izan zen, hainbat koreograforen errepertorioarekin birak eginez eta sormen-laborategietan parte hartuz. 2019an, Dantzan.eus eta Eresbilen ikertzaileen laguntzaile gisa aritu zen, euskal ondare erzenikoa babestu eta dokumentatzeko proiektuan laguntzen.

2018 eta 2022 artean, Euskal Herriko zehar hitzaldiak eman zituen euskal folklore-emanaldi tradizionalen inguruan, ondarearen eta sorkuntza garaikidearen arteko jauzia azpimarratuz. 2022tik, Dantzeriko[Euskadiko arte dramatiko eta dantza goi mailako eskolako] Teoria eta Historia departamentuan irakasle da(2022-egun), eta 2021eko neguan, UNEDen euskal dantzen inguruko ikastaro bat eman zuen.

Gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitatean euskal dantzen bilakaerari buruzko doktorego-tesia egiten ari da (2024-egun). Aldi berean, Kukai dantza konpainiarekin kolaboratzen ari da "Orkara" piezan (2022-2024), eta Jon Ander Urrestiren "Eukaliptus" obrarekin biran dabil 2024an. Gainera, Eneko Gil, Laida Aldaz eta Matxalen Bilbao koreografoekin sormen-laborategietan parte hartu du (2021-2023).

Dantza Mastera egin du UNIR Unibertsitatean (2022-2024) eta Kultur Kudeaketako Mastera UOCen (2020-2022). Enbata proiektuan zuzendaritza, ekoizpen eta antzezle lanetan aritzen da, lehen urratsak Kabidantza laguntzarekin gauzatuz.





Rafke Van Houplines

Mechelen (1996)

Ekoizpen eta zuzendaritza artistikoa



Rafke Van Houplines dantzari profesionala eta arte eszenikoetan eskarmentu handia duen irakasle belgikarra da. 2014an, DANTZAZekin hari zuen bere ibilbide profesionala Erreterian, Euskal Herrian. DANTZAZen egon ondoren, freelance gisa hari zen lanean LASALAN Donostian, Euskal Herrian, eta geroago Christine Harriid Project-en, Bordelen, Frantzia. Rafke OSA+MUJKA, ERTZA eta IZARO euskal abeslariarekin ere kolaboratzen ari da. Bere lanak Europako hainbat eszenatokitara eramán du, Idoménée opera barne, Lilleko Operarekin eta Berlingo Staatsoperrekin lankidetzan.

Ikuspegi akademikotik, Rafke Ingeles-Espainiar Hizkuntzalaritza Aplikatuan lizentziaduna da Vrije Universiteit Brussel (BE) unibertsitatean, non bere tesia alfabetatze maila baxuko atzerriko hizkuntzetako ikasleentzako blended learning delakoan zentratu zen. Gaur egun, Ingelesa Atzerriko Hizkuntza gisa Irakasteko Masterra egiten ari da UNIR, Espainian.

Rafkek ere badu eskarmentua komunikazioan, Komunikazio Arduradun gisa lan egin baitzuen Dantzaren 2023ko otsailetik 2024ko abuztura arte. Lanpostu horretan, gaztelaniazko, ingelesezko eta frantsesezko dokumentuen komunikazioa, itzulpena, transkripzioa eta berrikuspena kudeatu zituen.

2024ko irailetik aurrera, Rafkek bere gain hartuko ditu ENBATA proiektuaren antolakuntza artistikoaren eta produkzio-zuzendariaren funtzioak. Helduei ere dantza garaikidea irakasten jarraitzen du. Funtzio horiekin batera, dantzari freelance gisa lan egiten jarraitzen du performancearen eta dantzaren inguruko hainbat proiektutan.





Ainhoa Usandizaga

Hernani (1994)

Dantzaria eta sortzailea



Ainhoa Usandizaga Estarloo Hernani jaio zen 1994ean. Burgoreko dantza eskola profesionalean ikasketak egin ondoren, Madrilera joan zen bere lehen dantza konpainian lan egitera. Madrident hainbat koreograforekin ikasten eta lanean jarraitzeko aukera izan zuen, haien artean Ana Erdozain, Jesus Rubio, Amaya Galeote, Chevi Muraday...

Ondoren Poliana Limaren konpainiako kide bilakatzen da, *Las cosas se mueven y no dicen nada* eta *Las cosas en la distancia* piezekin Europatik gira bat eginez. Honez gain Back Production produktorearen *Metamorphoses* obra interdisziplinarrean parte hartzen du dantzan, kantuan eta interpretazioan.

2019an Euskal Herrira itzultzen da, Donostiako Cielo Raso konpainiarekin lanean hasi ahal izateko. Bertan Piedra eta Hãmaikà ikuskizunak eszenaratzen ditu. Aldi berean Gasteizko Proyecto Larrua konpainiaren *La casa vacía* eta Bilboko Almudena Perezen *Ultra Violet* piezetan ere parte hartzen du dantzari bezela.

Gaur egun, konpainia horietako interprete izateaz gain, bere lehenengo sorkuntza aurkeztu du, *Bihar* izenekoa.





Manu Gaigne

Donostia (1995)

Musikari eta sortzailea



Donostian (Gipuzkoa) jaioa, 1995an.

Musika garaikideko performance

mastera amaitu zuen, Escola Superior de Musica e Artes unibertsitatean, Oporton 2021an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren arte ikasketak egiteko bekarekin. Honen aurretik Musikako Goi-Mailako ikasketak egin zituen Musikenen, perkusioan espezializaturik, 2018an amaitutakoak. 2019. urtean, Nano Drumming Grupo de Percussao taldearen akademiaren parte izan zen.

2024. urtean Garazi Navas musikariarekin batera "sonografia irudipenak" proiektua sortu du, Euskal Herriko espazio ezberdinen soinu eraldaketaren inguruko hausnarketa ardatz duen proiektu musikala. 2023. urtean Puy Barral poetarekin batera eginiko "Huesos" proiektu esznikoa aurkeztu zuen. Jone Amezaga dantzariarekin batera "Remedios Vals" pieza sortu zuen 2022 urtean, musika ta dantzaren arteko lenguaia amon-komunen inguruan hausnartzen duena. Pieza hau azken hiru rteetako ibilbidearen emaitza izan da, 2020an "Zerbait.Noizbai.Nonbait" ikerketarekin hasi zena.

Interprete bezala hainbat talderekin jotzen du eta jo du, hala nola, Bilbao Sinfonietta, Sigma Project, Hatxe, Sarrabete, Haatik Dantza konpainia, Gasteizeko banda edota BOS. "La columna infame" antzezlanean edota Circo de Natal do Coliseuko musikaria izan zen ere.



Prentsa, irrati eta telebistako agerraldiak

► *EiTB Kultura* (2024, azaroak 29):


<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/eitb-kultura/bideoak/osoa/9638197/bideoa-enbata-gaur-egungo-iragana/>

► *Hiruka aldizkaria* (2024, azaroak 21):

<https://hiruka.eus/sopela/1732184605184-benat-urrutia-pujana-beti-sortu-digu-kuriositatea-ea-nola-eraike-ahal-genuen-euskal-dantza-garaikide-bat>

► *NAIZ irratia* (2024, azaroak 15):

<https://fb.watch/wdgcF3dY-t/> (00:59:57)



ENBATAREN KONTAKTUA ETA INFORMAZIO GEHIGARRIA



Webgunea: <https://www.enbatabadator.eus/>

Instagram: enbata_

Facebook: ENBATA - Aldizkari bizia

Email: enbata@enbatabadator.eus

Tel: 667813044

